

ESKATUTAKO HOBARIAK

OHZ

- Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune programaren barruan edo antzekoak diren beste foru edo udal programa batzuen barruan erabilera-lagapena duten ondasun higieziei.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

- Familia ugarietzako diru-sarreraren araberako hobariak ondorengo eran:

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq \text{LAGS}$	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

- Motor hibridoa (elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela, elektrikoa-gasa) duten ibilgailuentzako %75eko hobaria ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik 5 urtera arte.
- Motor elektrikoa duten ibilgailuentzako %95eko hobaria ibilgailua lehen aldiz matrikulatzen denetik 5 urtera arte.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

- %95eko hobaria EIT-a egin ondoren egin beharreko obretan, irisgarritasuna, bizigarritasuna edota energia eraginkortasuna hobetzeko direnean.
- %75eko hobaria alde zaharrearantz fatxadak berritzeko obretan.

UR-ORNIDURA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUAREN TASA ETA HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA ZERBITZUAREN TASA

- Salbuetsiak egongo dira ondorengo ezaugarriak dituzten bizikidetza unitateak:

Kide kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)
1	LAGS
2	LAGS + %30
3	LAGS + %40
4	LAGS + %50
=>5	LAGS + %60

- Hondakin bilketaren gaineko zergari dagozkion hobarietan, biohondakina jasotzeko edukiontzia erabiltzeko programan aktiboki parte hartzen dutenentzako %30eko hobaria.